

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/54/EE ZUZENTARAUA, 2008ko ekainaren 17koa, Kontseiluaren 95/50/EE Zuzentaraua —merkantzia arriskutsuen errepidezko garraioa kontrolatzeko prozedura uniformeei buruzkoa, Batzordearen esku utzitako betearazte-eskumenei dagokienez— aldatzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jauriaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/54/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 17 de junio de 2008, por la que se modifica la Directiva 95/50/CE del Consejo relativa a procedimientos uniformes de control del transporte de mercancías peligrosas por carretera en lo relativo a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 162/11, 2008/6/21ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## ZUZENTARAUAK

### EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/54/EE ZUZENTARAUA

2008ko ekainaren 17koa

**Kontseiluaren 95/50/EE Zuzentaraua —merkantzia arriskutsuen errepidezko garraioa kontrolatzeko prozedura uniformeei buruzkoa, Batzordearen esku utzitako betearazte-eskumenei dagokienez— aldatzen duena**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 71. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Gizarte eta Ekonomia Komitearen irizpena <sup>(2)</sup> aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(3)</sup> bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Kontseiluaren 95/50/EE Zuzentaruari jarraiki <sup>(4)</sup>, zenbait neurri Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordearen esku utzitako betearazte-eskumenei dagokien prozedurak finkatzen dituena <sup>(4)</sup>— bat etorritik hartu behar dira.

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Erabaki horrekin onartu zen Trataturaz 251. artikuluan finkatutako prozedurari jarraiki onartutako oinarritzko egintza batetik funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko irismen orokorreko neurriak onartzeko kontrol-dun arautze-prozedura; eta aukera ematen da funtsezkoak ez diren alderdiak ezabatze nahiz egintza funtsezkoak ez diren beste alderdi batzuekin osatzeko.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz Adierazpen bat egin zuten, Trataturaz 251. artikuluan finkatutako prozedura erabiliz, kontrol-dun arautze-prozedura dagoeneko indarrean dauden egintzetan aplikatzeko eskatuz; Adierazpen horri jarraiki, egintza horiek egokitu beharko dira aplikatzekoak diren prozedurekin bat etorritik.

(4) Horretarako, eskumen batzuk eman beharko zaizkio Batzordeari, 95/50/EE Zuzentaruako eranskinak zientzian eta teknikan egondako aurrerapenarako egokitu dituzten. Neurri horiek orokorrean bete beharrekoak direnez eta 95/50/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren alderdiak aldarazten dituztenez, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluan aurreikusitako kontrol-dun arautze-prozedura betez onartu behar dira.

(5) Horri jarraiki, 95/50/EE Zuzentaruak aldatuko da, horrenbestez.

(1) C 44 EO, 2008/16/02koa, 52. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko urtarrilaren 15ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea), eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko maiatzaren 14koa.

(3) L 249 EO, 1995/10/17koa, 35. or. Azkenik Batzordearen 2004/112/EE Erabakiak aldatutako Zuzentaruak (L 367 EO, 2004/12/14koa, 23. or.).

(4) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).

2008/54/EE Zuzentaruak (EBren Egunkari Ofiziala, L 162/11, 2008/6/21ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(6) Zuzentarau honen bidez 95/50/EE Zuzentarauean egindako aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozedurari bakarrik dagozkionez, estatu kideek ez dute aldaketok egin beharrik. Horri jarraiki, ez da xedapenik onartu behar.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**Aldaketak**

95/50/EE Zuzentaraueko 9. *bis* eta 9. *ter* artikuluen ordez testu hau jarri da:

«9. *bis* artikulua.

Batzordeak zientzian eta teknikan egondako aurrerapenetara egokituko ditu Zuzentaraue honetako eranskinak, bereziki kontuan hartuta 94/55/EE Zuzentaraueko aldaketak.

9. *ter* artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako kontrol-dun arautze-prozedurarekin bat etorritik hartuko dira Zuzentaraue honetan funtsezkoak ez diren alderdiak aldatzeko hartu beharreko neurri horiek.

*9. ter artikulua*

1. 94/55/EE Zuzentaraueko 9. artikuluari jarraiki sortutako Komitearen (aurrerantzean “Komitea”) laguntza izango du Batzordeak. 2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. *bis* artikuluko 1-4 paragrafoak eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da, halaber.»

*2. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Zuzentaraue hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

*3. artikulua*

**Hartzaileak**

Zuzentaraue honen hartzaileak estatu kideak dira. Estrasburgon emana, 2008ko ekainaren 17an.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea:* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean, presidentea:* J. LENARÈIÈ